

## David Tijero

### Disidencia, disidentes

A disidencia enos o semente de todas as revolucións  
procesos aleatorios son os disidentes, libres da atadura das dictaduras  
silenzados por levar o pecado escrito na súa opinión  
son os tolos en esgotadas democracias sen imaxinación  
e sempre necesarios para os covardes que non queren vivir sen esperanza  
perigo para a relixión, porque non teñen medo, medo que a relixión xestiona  
para o poder a única ameaza non armada  
a disidencia é un berro no silencio sombrizo  
a poza do alborexar no deserto  
a apoucada flor recién nada na neve  
flor que augura que virá a primavera  
pouquiño antes de morrer baixo a esgotada noite  
rebeldes que morren na terra do frío verán son os disidentes  
o que non se conforma con encher cada noite o estómago  
ese que enche a enorme praza  
o cidadán que escala o valado  
aquele detido que clama pola paz ante os dirixentes mundiais  
quen comproba que se pode matar coas palabras nunha existencia roubada  
ao que a vergonza non lle permite mirar cara outro lado  
o que ousa dicir que algún día será diferente  
quen coñeceu as pechaduras da sociedade libre nas noites á beira do río  
o que se trocou pobre nas patrias da falsa riqueza  
o soñador que non mercarán cos cartos e bens no reino do capital  
aquele que subiu á cima do monte para observar o outro lado  
o viaxeiro que coñeceu o estranxeiro  
quen volta ao lugar onde naceu para describir o que viu fóra  
o que leu un libro e se atreveu a contalo aos cegos  
quen sabe deixar tras de si o pasado na crenza de que o que ha vir será mellor  
o que realiza preguntas complicadas sabendo que non terá resposta  
o único que deixará impronta na uniformidade dos demais  
o que se sae da fileira para ver se é moi longa  
quen critica entre xordos aplausos  
disidente o escritor engulido polas mentiras da utopía  
disidente tamén a tinta cativa transformada en fume inalcanzábel  
cada pensador é un disidente  
disidente é todo artista  
logo é a creatividade a máis radical das disidencias  
por mudar para sempre a realidade  
por crebar os costumes que a doada inercia implantou

*Traducido do éuscaro por Iratxe Retolaza Gutiérrez*

### Disidentzia, disidentek

Iraultza guztien hazia dugu disidentzia  
zorizko prozesuak dira disidentek, diktaduren loturatik aske  
isilduak bekatua idatzita dutelako iritzian  
eroak dira irudimenik gabeko demokrazia nekatuetan  
eta beti beharrezkoak itxaropen barik bizi nahi ez duten koldarrentzat

erlijioaren arriskua, beldur ez direlako, beldurra kudeatzen duelako erlijioak  
boterearentzako armarik ez daukan mehatxu bakarria  
disidentzia da oihua isiltasun laiotzean  
goizaldiko potxingoa basamortuan  
elurretan jaio berriko lore lotsatia  
udaberria helduko dela iragarri duen lorea  
hil egin aurretik gau abaildupean  
uda hotzeko lurraldean hil egiten den matxinoa dugu disidentea  
sabela gauero betetzeaz konformatzen ez dena  
enparantza erraldoia betetzen duen hori  
harresia eskalatzen duen hiritarra  
munduko agintarien aurrean bakea eskatzen duen atxilotu hura  
hitzez hil egin daitekeela egiaztatu zutenak lapurturiko existentzian  
lotsak beste aldera so egiten utzi ez ziona  
noizbait zerbait ezberdina izango dela esatera ausartu zena  
gizarte librearen sarrailak ezagutu dituen ibai ondoko gau hezetan  
txiro bihurtu zen aberastasun faltsuaren aberrietan  
diruak eta ondareek erosiko ez duten ameslaria kapitalaren erresuman  
mendi tontorrera igo zena beste aldean zer zegoen behatzeko  
atzerria ezagutu duen bidaiaria  
jaioterrira itzultzen dena kanpoan ikusitakoa deskribatzeko  
liburu bat irakurri duena eta itsuei kontatzera ausartzen dena  
iragan atzean uzten dakiena datorrena hobea izan daitekeelakoan  
galdera zailak proposatzen dituen erantzunik ez duela jasoko jakinik  
aztarna egingo duen bakarria bestean uniformetasunean  
ilaratik atera dena oso luzea ote den ikusteko  
kritika egiten duena bestean txalo gorren artean  
disidentea utopiaren gezurrek idazle irentsia  
ke helduezin bihurturiko tinta gatibua disidentea ere bai  
pentsalari bakoitza disidentea da  
artista bakoitza disidentea dugu  
sormena disidentziarik erradikalena baita  
errealitatea betiko aldatzeagatik  
inertzia errazak ezarritako ohiturak apurtzeagatik.